

Nafarrkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko martxoaren 10a / VI. urtea / 169. zenbakia



'Ipuina', Miguel Goikoetxearen lanetako bat.

Miguel Goikoetxea argazkilari nafarraren lanak ikusgai daude Zarauzko Argazkiaren Euskal Museoan. Gutxitan ikusi dira altsasuar honen bizitza osoko lanaren emaitzak areto batean paratuta. 1894. urtean sortua, Goikoetxea Iruñean bizi izan zen ia bizitza osoan, eta bere belaunaldiko argazkilaririk onenetarikoa izan zen. Maisutasun

Miguel Goikoetxea, argazkia maite zuen pintorea

handiz nahastu zituen pintura eta argazkigintza, eta, horrela, lan bakoitzari pertsonalitate handia dario. Halaber, kaleko argazkiak izan zituen beti gogoko. Erakusketa bakarra paratu zuen bizitza osoan, eta 36ko gerraren ondotik utzi egin zion ia argazkigintzari, soilik erretratuak egin baitzituen, aurreko kalitaterik gabe.

Zooetxeak

Haize hotza hartzeko asmotan abiatzen da ilunabarrean pasealaria hiriko berdeguneetan barrena. Adar biluzien azpitik eta orbelaren gainetik, erraza zaio usain umelekin zorabiatzea eta zoruan lozorroan dauden ametsak amestea. Zaila go izaten zaio, aldiz, ilunpearen babesean bakarrik ibiltzea. Ia abiadan jarri bezain laster oin hotsak iragarriko dio norbait datorela kontrako norabidean.

Lehenik txakurra agertu da, husnan. Begiratu labor bat eman dio pasealariari lekutu baino lehen. Pasealaria segur dago segundu gutxiren buruan jabea azalduko dela, eta ohiko jokuari ekin dio. Tarte horretan halako

txakurrari zer nolako jabea dagoekioken asmatzen ahalegintzen da: sexua, adina, jazkera eta, batez ere, aurpegia irudikatzen ditu. Gutxitan igartzen du, baina dibertitu egiten da. Gainera, jolasak luze jo dezake, jabe eta txakur asko kabitzen baita hiri batean.

Eta ez bakarrik txakurrak. Zoologiko intimoa askozaz handiagoa da, neurtezina. Pasealariak badaki, azken batean, gorotzaren tamainuak erabakitzen duela zein diren kalea ikusiko duten animaliak. Gainontzekoek hainbeste merezi duten arren, pasealariak ez dezake imajinatu jabea kanarioa edo katua hartuta kalean pasean.

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Izan ere, pasealaria irudimen eskasekoa da, ezin baitu asmatu zer esaten dioten elkarrizkurrak eta jabeak etxe zuloan sartuta daudenean. Onik onenan hutsunez betetako elkarrizketa metafisiko baten zirriborroa osatzea erdiesten du, eta orduan pasealaria besteren lotsak betetzen du.

Halabaina ez zaio kasu handirik egin behar. Galdetzen diotenean pasealariak ihardesten du asto euliz inguratua duela gogoko edota ikusten ez duen xoriaren kantua; orobateko miraz behatzen dituela inoiz harrapatuko ez duen amorrainaren isla iluna eta igel berdearen jauzia.

Gutxi fida haatik, ankerra izaten ere badaki. Pasealariak be-

ne-benetan gizakiaren zerbitzatzeko dauden abereak maite ditu. Irribarretsu mintzo da behi eta ardi esneaz, arrautzaz edo haragiarekin. Halako bordako zakur zaunkariak oroitzen dela dio, hura bezalako gutxi ikusi dituela, ile luzea belar izpiz eta ongarririkorrez bete izaten zuela, «ardiak ekartzeko tenorean bista bezala».

Txakurra hartuta ateratzen den lagunak ezin ditu konprenitu pasealari bakartiaren herrimina eta irribarre memeloa. Etxera joan da. Pasealariari esan dio pentsatu egin behar duela, emaztearekin batera erabaki behar duela zer izen jarriko dioten txakur berriari. Gurasoen arazoak.

ANTZERKIA



'Gure lurreko istorioak' izenburuko antzezlan taularatu-ko du igande honetan, martxoak 12, Sambhu Teatro taldeak. Nafarroako Antzerki Eskolak eta Iruñeko Udalak antolatutako zikloaren barruan, arratsaldeko 6.00etan hasiko da. Sarrerak 250 pezeta salduko dituzte.

Melody Sisters antzerki taldeak 'Cuadros Clinicos' izeneko obra taularatu du gaur ostirala, martxoak 10, Zizur Nagusian. Bertako udalak antolatu duen zikloaren barruan, gaueko 10.00etan hasiko da, bertako Kultur Etxean. Sarrerak 400 pezeta salduko dituzte.

BERTSO SAIOAK



Anjel Mari Peñagarikano, Xabier Amuriza, Unai Iturriaga eta Estitxu Arozena bertsolarien saioa izanen da gaur ostirala, martxoak 10, Lesakako Koxkonta sagardotegian. Korrika-9aren ekitaldien barruan, gaueko 9.00etan hasiko da bertso-afaria.

Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak saioa eskainiko dute gaur ostirala, martxoak 10, Doneztebeko Amezti Jatean. Bertso-afari moduan antolatuta, gaueko 9.00etan hasiko da.

Estitxu Fernandez, Bittor Elizagoien eta Xabier Silveira bertsolarien saioa izanen da gaur ostirala, martxoak 10, Tafallako Pasadizo tabernan. Bertso-afari hau Korrika-9aren ekitaldien barruan dago eta gaueko 10.00etan hasiko da.

MUSIKA



Baldin Bada, Etsaiak, Patagonia eta Beltzez musika taldeen kontzertua izanen da bihar larunbata, hilak 11, Erratzuko pilotalekuan. Korrika-9aren ekitaldien barruan antolatuta, gaueko 11.00etan hasiko da eta sarrerak bertan erosita 800 pezeta eta aurretik erosiz gero 600 pezeta salduko dituzte.

Mikel Markez eta Izugarri taldeak Folk musika kontzertua eskainiko dute gaur arratsaldeko 8.00etan Iruñean, Aita Salestaren Ikastetxeko areto nagusian.

Utikan, Fe de Erratas eta Txalapartaris musika taldeek kontzertua eskainiko dute gaur gaueko 9.30etan Zentroniko herriko Kanpinean, Korrika-9aren antolatzaileek prestatuta.

NAFAR KRONIKA

PATXI LARRION

Labriteko partiduez

Kontuak kontu frontoia izaten ari da kronika honen ardatza. Gaurko honetan, pasa den igandean Labrit pilotalekuan gertatutakoa dugu hizpide. Joko bizia, zenbait unetan sutsua izatera iritsi ze-

zer den ikasi beharrean dago. Frontoikoa argigarria izan zen, arduraturik bainindukan nafar eskuinaren betiko erak bakar batzuen jokaeran antzema-teak.

Partida honetako aurrelaria

keta lekuko, zeozer leporatu-ko diete elkarri, inoiz baten bat espetxeratua izanen da, baina «biabilitate politiko» horren izenean edozer espero daiteke.

Azken bolada honetan go-



na, kantxak ezusteren bat eman zuen, eta askoren zoritxarrerako gutxi arriskatu zuen ere izan zen. Bertan jokatu zen partida ez da erraz ahazten diren horietakoa. Azken agintaldia ikusirik bazirudien itxura gordetzen ikasia zela hauteskundeetan boto gehien lortu zituen alderdia. Funtsean, itxurazko aldaketa izan baita oraingo lehendakariarena, eta etorkizunerako iragartzen zai- gun pertsonaia, hasteko itxura

ezaguna dugu, eta atzelariak, estatuko hiriburuan ezkutatzen bada ere, joko nahasiegia dauka nabarmen ez geratzeko. Estrategia garbia da, garaile atera baina arerioa, orain arteko arerio nagusia, zapaldu gabe, gure lurraldearen «biabilitate politikoa» ahalbideratu duten bi alderdien artean tirabirak egon badaude, baina ez lotura eteteko adinakoak.

Tarteka, aste honetan 'algarrobo' dela eta sartutako sala-

rakada nabarmena ezagutzen ari den alderdia ez da liskarretatik salbu geratu, horra hor egoitza berriarena. Halere, pilotalekuan kantxa gutxien duten alderdiek, aukerako pilotak izanda ere, ez dute burua altxatzeko imintziorik egin. Labrit pilotalekua, Nafarroa Garaiko hainbat gertakizunen lekukoa. Ezetz pilotalekuan bilduak zirenen erdiek ere jakin zer dela eta duen Labrit izena.

ASTEKO PERTSONAIAK



Jose Mª Irujo
Kazetaria

Roldan kasua atera zuen kazetari nafarra izan da aste honetan Iruñean, Pentsako Elkartek Ikerkuntza Kazetaritzari buruz antolatu dituen Jardunaldi batzuen barruan. Jose Maria Irujo iruindarra 'Diario 16' egunkarian dago lanean eta 1993ko azaroan atera zuen lehen aldiz Luis Roldanen patrimonioak urte gutxitan izan zuen handitzearen berria. Bere laneko gorabeherak azaldu zituen, «historiak bilatzen badituzu beti aurkitzen» direla azpimarratuz. Hori bai, zai egon beharra dago ezagun eta pertsonai zehatzen komentarioak entzuteko edota ikertzeko. Gero, lana ondo bukatu ostean, poztasun handia sentitzen dela zioen, Roldan bezalako kasu batean «lorpen handia izan da horrelako tipoa Ministro Kontseiluan eserita ez ikusteko».



Rosario Flores
Abeslaria

Azto izan zen Rosario abeslari andaluziarra Iruñean, Gaiarren Antzokian, 'Diario de Noticias' egunkariak antolatuta eta Nafarroako Aurrezki Kutxak eta '40 Principales' irratiak lagundutako ekitaldian. Astearterako sarrera guztiak saldua zeuden, merkeak ez izan arren. Jakina, Nafarroan arrakasta handia lortu du Rosariok hasieratik, orain dela urte t'erdi eman zuen kontzertua ere jendez gainezka izan zen, Erriberri orduan, Nafarroako Jaialdien barruan. Eta orain, 'Siento' diska berriaren abestiek ere lortu dute 'De ley' lehen diskoan zeudenek izan zuten ospea. Rosariok berak idatzirik abestiak dira, bere anaia den Antoniok lagundu badio ere, aurreneko diskoan bezala.

AHAZTU GABE!

KANTA TXAPELKETA



Haur Kantari Txapelketaren lehen kanporaketa saioa izanen da bihar Iruñean, Aita Salestaren aretoan, arratsaldeko 4.30etan hasita. Lehen kanporaketa honetan Iruñea, Iruñerria, Larraun, Sakana eta Estellerriko kantariak ariko dira, bi mailetan banatuta: haurrak eta gazte- txoak. Zehazki, 6 bikote eta 11 taldek abestuko dituzte herri kantak. Hau da, goi polifoniak ez du tokirik. Lehian aritzeak epaimahaiaren beharra dakar, eta, egiteko horretan hiru lagun ariko zaizkigu: Koldo Pastor musikagile ezaguna, Fermin Iriarte abesbatza-zuzendari ari- tua eta Mikel Juanitz musika irakasle gaztea. Epaimahaiak ondoko hau izanen du kontutan batzuk zein besteen merituak juzkatzerakoan: doinua, hitzak, ahotsa, trebetasuna, eta kantua- ren ekarpena. Honatx kantarien ikastetxeak: Iruñeko Amañur Udal Ikastola, Zizur Txikiko San Fermin, Atarrabiako Paz de Ziganda, Iruñeko Frantzisko de Jaso, Altsasuko Ikastola, Lizarrako Ikastola, Lekunberriko Musika Eskola eta Irurtzongo eskola. Antolatzailea Euskal Kantuzaleen Elkarte da.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostira- lera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00eta- ra... 'Karakola segi hola' gaz- teendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elka- rrizketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasu- na, sukaldaritza, ohiturak...

Doneztebe

'Sanoki-tik' 'Bordatxo-ra'

KIKE D. DE ULZURRUN / IRUNEA

Nafar bertsozalearentzat, zinez, aterpe goxoa gertatu zen Aldudeko 'Sanoki' izeneko antzokia, zerutik lurrera zeforren erauntsia saihesteko bidea izan baitzen. Hantxe aritu ziren zortzi bertsolari aretoa, mukuru, bete zuten 250rren bat ikusleren aitzinean. 'Sanoki-ri' 'Bordatxo-k' hartuko dio txanda, etzi, igandean. Izan ere, Doneztebeko dantzaleku famatu hori izanen da bertze horrenbertze bertsolariren lanaren lekuko, arratsaldeko Setatik aurrera.

Aztiaren dohaiez jantzita ibiltzeko suertea izan ez duenak nekez zehaztuko du nork erdietsiko duen bide zuzenari lotzea Leitzako Finalean kantatzeko eta nork erranen dion adio aurtengo txapelketari. Zenbait gauza igar daiteke, noski, baina den dena, txirripaz edo. Benetan saio irekia da, eta, alde zaitzinetik polita. Ikusi bertzela.

Zortzikotean Bittor Elizagoien baztandarra agertzen zaigu. Arraioztarraren goranzko ibilera ikusgarriaren ordaina iazko txapelaren eskutik heldu zaio. Txapelak, harat-honat, lagundu du Indartenekobordako semea azken urte honetan eta boneta beltz handi horrek ederki daki zer darabilen txapeldunak kaskoan: «Gauza berria izanen da niretako», —dio txapelaren jabeak—, «orai artio sekulan ez bainaiz aritu txapela jantzita nuela, eta, aunitzez ere hobea da txapelarik gabe aritu txapelarekin baino». Lasai dabil Elizagoien horregatio, bere prestaketa egoki eramaten ari baita eta go-goa bilduta eduki ezker, bere neurria emanen du.

Baztandarraren prenda preziatua begiz emanik daudenen artean Estitxu Arozena azaltzen da. Duela guti 20 urte egin dituen lesakar hau txapeldunordea dugu, 93tik honat, gainera. Aski ezaguna da Gipuzkoako plazetan eta bereganatuxea dauka lehiari aritzeak dakarren esperientzia. Ez dugu Jesus Artzallus atzenuko, hots, Lapurdin bizi den goiaztarra, ezta Urnietan etxea duen Jose Fermin Argiñarena. Errazkindarra txapeldun gertatu zen duela 9 urte, eta, iaz parte hartu ez baldin bazuen ere, aurtengo indarberrituta helduko dio. Iñigo Olaetxea ere aipatu beharra dago, baita Estitxu Fernandez ere. Bi lesakarrok badakite zer den lehiaketa eta sopesa eman lezakete, nerbioak menperatuta. Doneztebeko saioan bada bertze gauza bat osotara azpimarragarria, lehenbizikoz sakandar bat arituko baita txapelketan. Josema Leitzak bertso idatzietan es-




Bertso saioa girotzeko ekitaldiak prestatu ditu Langarra taldeak.

Igandean jakinen dugu nork abestuko duen Barañaingo Finalurrean eta nor joanen den Leitzara Manolo Arozena eta Xalbadorrekin batera.

kuratua duen mailaren erdia baldin badu bapatekoan kontutan hartzeko moduko bertsolaria izanen da. Aipatutako hauei guzietan, finean, Lakaren izena gehitu behar zaie, orain dela 15 urte plazaratu baitzen lehen aldiz ahots ederreko baigorriarra.

Igandean jakinen dugu, beraz, nork abestuko duen Barañaingo Finalurrean eta nor joanen den Leitzara Manolo Arozena eta Xalbadorrekin batera. Bitartean, igandeko saioa, buru belarri, prestatzen dabilza Malerreka aldean. Gaurkoan, konparazio batera, kanporaketa girotzeko, hitzaldia burutuko da Xabier Amuriza bertsolariaren eskutik, Doneztebeko liburutegian, arratsaldeko 7,30etan hasita. Solasgaia hauxe izanen da: 'Egungo bertsolaritza eta txapelketak'. Igandean, berriz, eguerdian trikitilariak, karriz karriz, ibiliko dira. Ordubietan bazkaria izanen da Arkupeak jubilatutako elkartearen egoitzan. Herri bazkarirako txartelak Malerrekako zenbait herritan daude salgai: Sunbillako Bustitz ostatuan; Doneztebeko Belarra kafetegian eta jubilatuen ostatuan; Zubietako herriko ostatuan; Iturengo herriko ostatuan; Donamariako herriko ostatuan eta Elgorriagako ostatuan.



Bittor Elizagoien eta Jesus Artzallus.



Aiherra

Irulegiko Irratiaren kanpainako bazkaria

L.F. / BAIONA

Urtero bezala, bazkari herrikoiarekin amaitu zen Irulegiko Irratiak egindako sostengu kanpaina. Ekitaldia Aiherran iragan zen joan den igandean eta 270 bazkaltiarrek ihardetsi zioten deiari, beraien atxikimendua erakutsiz Garazin kokatu den irratiari. Azpimarratu behar da laguntzaile guztiei gomiti berezia luzatu ziela irratiak eta kopuru handian etorri zirela.

Bi astez 260 lagunek Nafarroa Beherea zeharkatu zuten kanpainaren karietara eta diru biltzearen bilduma baikorra egin zuten irratiariek, mozkinak iaz baino % 10 handiago izan baitira. Hala ere, ahantzi dutenek aukera dute beraien laguntza zuzenean bidal-

tzeko irratiari, azpimarratu zuten. Kanpaina nahiko ongi iragan zela eskualde guztietan gehitu zuten, eta poztasuna adierazi. Azpimarratu behar da laguntzaileen sostenguak osatzen duela aurrekontuaren % 40 eta bildutako diruari esker lau langiletarik 2,5en soldatak ordaintzen dituztela.

Kanpaina emankorra izateaz gain, gazte ugariaren inplikazioa begi onez ikusi zutela adierazi zuten langileek, haien presentziak geroko hats berria ematen baitio irratiari. Aiherrako bazkarian lanean aritzeko 40 gazte bildu ziren, Oihartzuna elkarteko kide gehienak. Elkarte honi dagokio irratiaren inguruan giroa sortzea eta kanpainak bururatzea diru laguntza biltzeko.

Donapaleu

Hazitarako artoa kinka txarrean

L.F. / BAIONA

Luzaz Amikuzeko laborarien diru iturri garantzitsuena izan dena urte urte ttipitzen ari da eta pentsa daiteke hazitarako artoaren ekoizpena ez dela goratuko datozen urteetan ere, ekoizleen biltzar nagusian ikusitakoaren ondotik. Hots, joan den ostiralean Donapaleuko Lur Berriren egoitzan 150 laborari bildu ziren, berri txarrak entzuteko urteko bileraren karietara. Joan den urteko kontuak ezin argiago daude: hazitarako artoaren prezioa berdintsu izanen baldin bada, 1995ean lur eremuak ttipituko dituztela argiki adierazi zuten kooperatibaren arduradunek. Iazko ekoizpenaren zati handi bat oraindik stocketan baita, 1994ko udan landatu zituzten 2.300 hektareetatik 500 gutiago landatuko dira aurtengo. Ondoren, laborari asko hazitarako artoaren ekoizpenik gabe geratuko dira, nahiz eta funtsezko diru iturria den antzientzat.

Duela hiru urte ekoizpena murriztu behar zela eta, Amikuzeko laborarien lur batzuk 'hor-matzen' hasi ziren: kooperatibak ordaintzen dio laborariari lurrik ez erabiltzeko (gutxi hala ere, konparatuz artoaren mozkinarekin). Urtero baztertzen diren lur eremuez gain, beste 500 hektarea hormatuko dira aurtengo. Bilera nagusia datorren astean egingen dute guneak finkatzeko eta ez da dudarik haserreak eta kezkek haundituko direla eskualde horretan, batez ere ikusiz laborarietako inbertsio ugari egin dituztela hazitarako artoaren ekoizpenean. Errate baterako, artoa ureztatzea beharrezkotzat jo baitzuen kooperatibak, zernahi aintzira artifizial eginarazi dituzte ia herri guztietan, eta antolakuntza horiek egiteko laborarietako mailegu handiak egin zituzten. Egoera ez da aldatuko, kooperatibak bestelako tresneria erosteko aholkuak ematen baitizkie laborariari.





Miguel Goikoetxea.

Kaleko argazkiak

Miguel Goikoetxea altsasuarraren lanaren erakusketa dago Zarautzen

A.B. / IRUNEA

Miguel Goikoetxea argazkilari ezezaguna izan zen, nahita akaso. Altsasun sortua 1894an, Iruñean eman zuen ia bizitza osoa, Bordelen egon zen hiru urteak —1914tik 1917ra— kenduta, baina oso inguru jakinetan soilik izan zen ezaguna. Etxe onekoa, ez zuen inoiz lan egin behar izan bizi ahal izateko, eta argazkilaria izan zen, beraz, oso-oso.

Duela gutxi arte, ordea, ez ziren bere lanak estudioetatik atera. Bordelen argazkigintzari lotzeko hartu zuen erabakiaren ondotik, ez zuen beste zereginik buruan izan, baina, arraroa bada ere, apenas egin zituen erakusketak. 1921ean Madrilgo Argazkigintzaren Nazioarteko Saloian parte hartu zuen, eta gero, 1927tik 1936ra, urtero, Halaber, Bartzelonako eta Zaragozako saloietan erakutsi zituen bere lanak, eta baita Milan, Londres eta Pariskoetan ere. Erakusketa bakarra egin zuen ordea, 1930eko Valentziako Foto Klubean. Orduko egunkarian jasotako kritika adierazgarria da oso: «(...) lehen plano hutsak, eremu zabal askoak, erraztasun handiz soluzionaturako zabalera inoiz pentsatu gabeak, estetikaren lege klasiakoekin kontrajartzen diren ikuspegi arraroak(...)». Kritikariaren arabera, erakusketak inpresio «triste» uzten zuen.

Ez da arraroa iritzia. Altsasuar honen sortze lanean garai goren 1925etik 1936ra bitartekoa izan zen, eta orduan garatu zituen bere maisutasunaren ezaugarri guztiak. Goikoetxea argazkilari piktolarista izan zen, alegia, teknika guztia positibo eta negatiboetan eskua sartzean oinarritzen zuten horietakoa. Esan

Zarauko (Gipuzkoa) Argazkiaren Euskal Museoak Miguel Goikoetxea argazkilari altsasuarraren lanaren erakusketa paratu du egunotan, hilaren 26ra bitarte. Garrantzizkoa oso arte honen zalearendako, duela gutxi arte nahiko ezezaguna baitzen artista honen lana, eta erakusketa batean ikusteko aukera gutxitan izan delako gure artean. Goikoetxeak pintura eta argazkigintza nahasten zituen bere lanetan, eta, ondorioz, pertsonalitate handiko emaitzak lortu zituen.


daiteke pinturaren eta argazkigintzaren arteetatik jaso zutela bere lanek, tintura eta pigmentu franko erabili zitueldako beti. Horretaz gain, ez zitzaizkion inoiz interesatu alde aurretik prestatutako argazkiak, konposizio ederki elaboratuak, bere lan gehiena kalean egin zuelako, kaleko pertsonen aterako argazkien bidez. Hori dela eta, gaur egun ezagutzen ditugun plantako argazkilaria ez zela azpimarratu du Carlos Canovas artistaren lana aztertu duen historialariak. Behin Sorolla pintore famatua aurkitu zuen hondartza batean, neskatilaz inguratuta. Argazki makina besapean zuela, hurbildu egin zitzaion, eta makina atera zuen, argazkia egiteko prest. Orduan, Sorolla ohartu zen, eta begiak argazkilaria-engan zuzendu zituen, honek dena bildu eta alde egin zuen etorri zen tokitik.

Gerra ondotik argazkigintzari ia utzi zion Goikoetxeak, eta soilik tarteka egiten zituen negatiboak. Gehienbat erretratuekin aritu zen orduan, eta, Canovasen ustetan, «ia denak interesik gabekoak». Bromuro papera —gaur egungo negatiboaren hasiera— ez zuen gustuko, eta bere betiko teknikak atzeratuak gelditu ziren. Bere oharren artean horri buruzko gogoeta dago. «Zerbait tajuz egin ahal izateko, behar dut frogak arraskatu, borratu, ahuldu edo indartu, bai negatiboan bai positiboan (...)». Ez naiz kapaza ezer egiteko soilik bromuro paperak erabiliz.

Canovasen irudikoz, bere belaualdiko onenetakoen artean dago, eta bere argazkiek gutxi duten indarra dutela bistan da. Pertsona ezezagunak izan ziren bere lanaren oinarria, bera bezala.



Ezkerretik eskuinera eta goitik behera, 'Aitaren bazkariarekin', 'Titulurik gabekoa', 'Ikaztobia' eta 'Arrantzaleak'.



Toponimoetan tristeenak

Galdera: Toponimoetan tristeenak idatz ditzaket gau honetan. Esate baterako 'nire nobiyoa Imirizaldukoa zan, eta euskara teknikariarekin joan zait'. Ilargi eder-ederra dago, eta lekutan izarrak elkarri akupunkturaketa dabilta. Nik maiten nuen maitagarri, baina hark ni noizean behin bakarrikan eta halaxe ez dago nora joanik. Toponimoetan tristeenak idatz ditzaket gau honetan. Gaur bezalako gau batean nire besoetan loak hartzen zuen eta orain nire abotsa alferrik haren bila dabilkit, nire gogoak ez bait du amore eman nahi, nire baitan sortzen duen azken dolua izanda ere, nik idazten dizkiodan azken toponimoak direlarik ere. «Zergatik ez ote dugu etxola txiki bat erosten Romanzadon», esate baterako. Ezin baitut txikitu oroimen horiek, eta oroimen horiek loturik ditudan leku eta toponimoak.

Erantzuna: Kontsola zaitzen, esanen dizut zuk aipatzen duzun geografia hori ez dela maitalearen geografia, haren gorputzaren txoko, mehaka, zelai, harrate, harripaxaketa, uharka, kapana, kamio, kobazulo, harriboton, oihan, soil, zubi, harrobi, kaskailu, kanposantu eta eskuen geografia. Horixe da oroimenak buruak txikitzeko ibiltzen duen geografia. Kanpoko geografia hori ezin ahaztekoa da.

Galdera: Optika batean lan egiten dut, eta bezero batek lente beltzak eskatu dizkit 'erretzen' ari baita. Hori arrunta al da?

Erantzuna: Hasteko esan behar dizut arrunta zer den ez dakidala. Oso kontzeptu irristakorra iruditzen ziat. Erregela eta mapa hartu, muga bat egin, eta alde batekoak arruntak dira eta beste aldekoak berriz, martitzarrak. Kokook ederki dakigu zein mugikorrek diren mugak. Gaur hemen, bihar batek daki. Ez zait oso interesgarria iruditzen. Askozaz ere interesgarriagoa iruditzen zait elkarren antzak bilatzea.

Zure galderari erantzun diezajogun orain. Begiak eta 'erresuminak' loturik daude, betidanik. Ikusi, esaterako, Axularren aipu hau: 'Bigarren behatze hark, berriz, bihurtze hark, gogoeta egiten duela, eta zer hari den dakiela, begiak finkaturik eta landaturik, emaztearen begiei, begitar-teari, gorputzari, edertasunari eta ibilguneari beha egote hark, sua pizten du, aitzinazten du eta azkenean erretzen du'. Erre edota ez erre,



Elias Beorburu
de Berriobehiti
Jaun Dotorrea

Kokook ederki
dakigu zein
mugikorrek diren
mugak. Gaur
hemen, bihar
batek daki.

hortxe da kokka. Norberaren aukera.

Galdera: Argi lkara. Argiastea baino lehen, unetxo bat izaten da non gaueko txoriak ixildu egiten baitira, eta egunekoak kantatzen hasiak ez. Oihanean unetxo horretan ez da deus ere aditzen. Hortxe ere izaten da jaio eta hiltzeko gehien usatzen den tenorea. Udara gorrian ere hotza egiten du unetxo horretan. Unetxo horretan amets sexuak mutikoen mairidireak zikintzen dituzte alegiazkoari halako kutxu errealista emanaz. Alemanieraz badago propio hitz bat unetxo hori izendatzeko. Halaxe esan zidan neska alemaniar batek, eta harrez geroztik oroitzen naiz Argi lkara hartaz. Duela hogeita hamar urte. Ni garai hartan andre alemaniar batekin hartu-emanetan hasi nintzen. Argi lkara hartan, iluntasunaz baliatuz, bere alaba nire ohean sartu zen. Neskatxa



Pamielak argitaratutako 'Caines navarros' liburuaren ilustrazioa.

Ez dago deus ere
egokiagorik
denbora baino
gure
sentimenduak
kimikoki
bereizteko.

bat zen, eta nik, ohartu nintzeanean, nire onetatik aterata, jo nuen. Gau hartatik ez nuen berriro ikusi. Eta aurteminten ikusi nuen. Eta esan nion nor nintzen, eta Argi lkara hura nire burutik ezin kenduz ni ibili arren, lanak ematen zizkion nitaz ororitze hutsak.

Erantzuna: Ez dago deus ere egokiagorik denbora baino gure sentimenduak kimikoki bereizteko.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador



Nabigazioneko liburu

Donibane Lohitzuneko Pierres Etxeberri Dorrek euskaratutako bidaia-idazkia



Bat baino gehiago badira Etxeberri izeneko euskal idazleak, hor baititugu, ez da aipatu beharra ere, Sarako miriku famatua edo Ziburuko olerkari teologo handia. Halarik ere, bada beste Etxeberri bat, ez sona horren adituko, hemen aipatzea benetan merezi duena, hau da, Pierres Etxeberri Dorre deiturikoa, Donibane Lohitzuneko semea.

Dorre honek beste euskaldun batek izkiriatu frantses liburutiko itzulpena egin zuen, itsasgizon eta pilotuei espreski zuzendurikoa. Izan ere, 1632. urtean Rouen hiriko Raph du Petit-Val izeneko etxean argitara ematen baitu Ziburu edo Zubiburu herrikoa den Martin Hoiarabalgok bere *Les voyages aventureux du capitaine Martin de Hoyarababal habitant de Zubiburu*. Beraz, liburu honetako itzulpena da Pierres Etxeberri moldatu zuena. Honen ale bakarra geratzen omen da egun, Parisko Liburutegi Nazionalan, zeharo desegin eta zaharrituta dagoena. Edizio faksimila Donostiako Txertoa argitaletxeak inprimatu zuen Estellerriko delako Graficas Lizarra famatuetan 1985. urtean, 350tako hedapena labur batean. Vinsonek Hoiarabalen liburuaren lehendabiziko edizioa ez omen du ezagutzen, bai baina bigarrena, Bordelen 1633. urtean agertu zena hain zuzen ere: *revueu corrigé en ceste dernière impression, augmenté de la declinaison du soleil...* Bestaldetik, argitalpen honetan honela justifikatzen da inprimatzailea: **le lecteur trouvera mots de divers langages et divers orthographies, la raison en est que l'auteur qui viest pas**

français mais basque des frontières d'Espagne.

Euskaldunek marinela bezala zuten ospe handia kontuan harturik, ez da harrizkoa 1677. urtean Dorrek horrelakorik egin izana. Hau da, luzamendu gehiagotan sartu gabe, Lapurdiko kostaldeko euskaraz egin zuen egokipena: *Liburu hau da ixasoko nabigazionekoa, Martin de Hoyarababal egiña franceses eta Piarres Detcheberry edo Dorrec escararat emana, eta cerbait guehiago abantzatua, Bayonan, Fauvet inprimerian Carmeseteco aldean, DCLXXVII*. Horrela hasten da gure Donibaneko Dorreak: *Jaquitocoduç liburu hunetan comprenitçen direla arrutat, lecoc, çundac, eta marea contubac eta entradac, eçagutçac halturac hala nola, lebantecoac, Espainnyacoac, Franciacoac, Bretaniacoac, Normandiacoac, eta Picardiacoac, Flandrescoac, Angueleterracoac, Irlandacoac, Escosiacoac eta Ternubacoac, hala nola baitire seguidan iscribaubac placerduten maistrubentcat, perille-tarie goardatceco.*

Beste aldetik ere, hirurogeitar mar inguru kapituluez hornituriko aurkibide zabala dugu Dorren itzulpen moldatuak eskeintzen diguna aipatu leku guzietako berri ezin praktikagoak argigarri itsasgizonendako. Ez ostera gure-tako, itsas lehorreko horrelako ziotan guztiz profanoak garenondako, bada seguroenik, ez legiuke praktikoen gaituko Itsasoko nabigazioneko hau gure lurraldeko ha-maika playa-zelai arruntetan murgiltzeko, ez horixe!



■ Iruñeko Hiria Xake Tomeo itxiko 8. ihardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 4ean jokaturia.

Jordi Magem, 2.520 ELOkoa (Katalunia)-Alexander Morozovix, 2.575 ELOkoa (Errusia).

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3. Ab5,a6; 4.Ac6,d-c6; 5.0-0,Df6; 6.d4,d4; 7.Ag5,Db6; 8.Zd4,Ad7; 9.Zc3,Ae7; 10.Ae7,Ze7; 11.Zb3,0-0-0. Erasora joateko asmo garbia dago. Damak aldatzeak lasaitasuna ekarriko lioke partidari. 12.De2,g5; 13.De3,b6; 14.Dg5. Txurientzat peoi bateko abantaila. Baina bide oso arriskutsua ireki diete beltzei. 14...dG-g8; 15.De3,Dg6; 16.g3,h5; 17.f3,f5; 18.f5,Zf5; 19.Db3,Eb8. Ezin da hau egin: 20.Dd7,Zg3; 21.g3,Dg3

xa; 22.Eh1,Dh4 xa. Dama lotuta dago.

20.Ze4,Gg7; 21.Dc3,Gf8; 22.aG-e1,c5; 23.Gf2,Ac6; 24.bZ-d2,Ge7; 25.b4,b4; 26.Db4,Gd8; 27.Zb3,Ge5; 28.Dc3,dG-e8; 29.bZ-d2,Ab7. Ikus Koadroa. Erasoa hurbiltzen da. Prestaketa burututa dago. 30.eG-f1,h4; 31.g4,h3; 32.Ge1,Zh4; 33.fG-e2. Jokaldi hau oztopatzeke: 33...Ae4; 34.Ze4,Zf3 xa; 35.Df3,Ge4. Beltzak hobeto geratuko lirateke. 33...a5; 34.Zg3. Txuriek beltzen esku utzi dute partida. Dena den, izugarri estututa, aterabide gutxi zuten. 34...Ge2; 35.Ge2,Ge2; 36.Ze2,Zf3 xa; 37.Zf3,Dg4 xa; 38.Ef2,Dg2 xa; 39.Ee1,Af3; 40.De3,Ad5. Bukaera erabakita dagoenez, txuriek etsi zuten.



Joan den urtean, Ruandako gerra zibilak azken urteotako sarraskirik handiena eragin zuenean, munduko Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE), hainbat herrialdetako erakunde ofizialekin batera, martxan paratu zituzten egoerari aurre egiteko giza-laguntza proiektuak, bai gobernuen nola populazioaren dirulaguntzari esker. Nafarroak erantzun ezin hobea eman zuen, eta horietako erakunde batek —Medicus Mundik— azaldu egin du orain orduan bildutakoa gastatzeko modua.

Medicus Mundi Ruandan eta Zairen

P.U. / IRUNEA

Medicus Mundi aitzindaria da mendebaldeko lurraldeetan Hirugarren Munduari laguntza emateko antolatu diren taldeen artean. Ruandako sarraskia eta ondorengo jende migrazioak zirela eta, Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) eratu zituzten kanpainen artean arrakastatsuenetakoa izan zen Medicus Mundirena. Nafarroako atalaren helburu nagusia Nema herrian zenbait urtez zabalik egon zen eritetxea berriro zabaltzea zen, eta hori lortu dute Nafarroan berean jasotako dirulaguntzei esker. Orain, «nafar gizartearekin hartutako konpromezua dela eta», diru horren erabilera zehaztu dute, eta orain arte egin dena ezezik hemendik aurrera lortu beharreko helburuak ere azaldu dituzte.

Bi dira Nafarroako Medicus Mundi erakundearen laguntza jasoko duten herrialdeak: Zaire eta Ruanda. Lehendabizikoari dagokionez, Goma eta Bukavuko zentroak izan dira ahalegin guztiak xurgatu dituztenak. Lehengo urteko udaberrian Ruandako gerra gogortu egin zen franko, eta ordurarteko egoera latzenak bizi zituen populazioak. Horrek eragin zuen Zairera migrazioa, eta uztailean ehun milaka ruandar igaro ziren mugatik. Gomako kanpamentuan, Medicus Mundiren talde nafarraren zeregina Goman bertan Karitatearen Alabak taldeak paratutako kanpamentuari dirulaguntza ematea izan zen. Bertan biltzen ziren haur galduak edo umezurzak. Halaber, materiala eta sendagileak bidali ziren erruz.

Horrekin batera, laguntza zuzena zentralizatu zuen Medicus Mundik Bukavuko—Ruanda eta Zaireko muga dagoen laku honen hegoaldeko herri bat— zentroetan. Horrela, Bukavuko Eritetxera materiala eta bi sendagile eta erizain bat bidali ziren lehendabiziko hiru hilabeteetan, hau da, errefuxiatu gehien heldu ziren garaian. Behin kanpamentuak eta atentzioa eratuta, misioa amaitutzat eman zen. Halaber, Inera I, Inera II eta Murala izeneko kanpamentuetan koordinazioa eta atentzio sanitarioa eratu

zen, eta hori Nembako eritetxeko behialako zuzendariaren esku egon zen. Victoria Lopezek, horretarako, Maria Jose Liso botikariaren eta eta bi mediku ruandarren laguntza izan zuen. Halaber, medikuntzako ezagutzak zituzten herrialde horretako 32 langile kontratatu ziren, atentzio eta prebentzio arloetan lan egiteko. Lan hau Caritas erakundearen langileekin batera burutu zen. Honekin batera, Bukavutik 35 kilometrora dagoen Niangezy kanpamentuan ura edangarri egiteko planta jarri zen, eta kontrola Nafarroako Suhiltzaileak eta Munduko Farmazilariak erakundeekin batera egiten ari da.

Ruandari dagokionez, abuztuan FPR taldeak boterea hartu zuenetik, Nembako inguruko osasun-atentzioa eratzen ahalegindu da Medicus Mundi, eta botikak eta materiala banatzeko sarea berrosatu du. Gogoratu behar da Nembako eritetxea desegin egin zutela gerran, eta berriro eraiki eta martxan jarri da. Horretarako, azken hilabeteotan hiru aldiz bidali dira botikak eta materiala. Gerra aurretik ehun ohe zeuden bertan, eta gaur egun 120 dira, desnutritzio larria jasaten ari diren haur asko direlako. Alabaina, Ruandako langileak 40 dira egun. Gerra aurretik 70 ziren.

Bestalde, Kigalin bertan kokatua dagoen botikak banatzeko sarea osatu du erakundeak, Giza Laguntzarako Agentzia Europarra erakundearen dirulaguntzarekin. Gerra piztu baino lehen sare honen bidez hornitzen ziren Ruandako eritetxe, osasun zentro eta anbulatorio gehienak. Silvia Rodrigo botikari nafarra arduratzen da proiektuaz.

Honen ondorioz, diru inbertsio handia egin behar izan da, baina Medicus Mundiko arduradunek azaldu dutenez, ez da kanpamentan bildu zen diru guztia xahutu. Azken hilabeteetan 165 milioi pezeta jaso ditu erakundeak, bai bide pribatu zein publikoetatik, baina egoerak hilabeteak ezezik beharbada urteak ere iraungo duen beldurrak zuhur izatera bultzatu ditu arduradunak. Gaur egun gelditzen diren 81 milioi pezetekin laguntza beste sei hilabeteetan eman daiteke.



Juan Carlos Aretxabaleta, Victoria Lopez eta Miguel Argal Bokavuko kanpoan.

MEDICUS MUNDI



MEDICUS MUNDI: RUANDA ETA ZAIRE

DIRUSARRERAK

165.301.238

Partikularrenak 87.545.905

Nafarroako Gobernua 38.000.000

Giza Laguntzarako Agentzia Europearra 31.038.357

Udal zenbait 8.716.976

GASTUAK

ARLOKA 87.179.529

Osasun-materiala 28.754.409

Botikak 10.381.820

Ura edangarri egiteko zentrua 8.106.575

Langilegoa 7.493.938

Garraioak 5.777.002

Zentralaren ekipamendua 23.665.785



PROIEKTUKA 84.179.529

Goma: Haurrak jasotzeko zentrua 6.033.075

Bukavu: eritetxea 24.993.318

Nemba: eritetxea 27.513.129

Kigali: Distribuzio sarea 25.640.007

«Berandu heldu naiz»

A. BARANDIARAN / ALTSASU

'Nafarroa Beherea' izeneko diskoa grabatu berri du Enrike Zelaia akordeolari altsasuarak Elkar disketearen eskutik. Disko honekin amaitu du musikariak Euskal Herriko zazpi lurraldeen gainean egin duen bilduma, duela 18 urte —'Nafarroa' lanarekin— hasi zuen bilduma. Lan erraldoi hau «historikoa» izango dela dio Zelaia, baina baita azken diskoarekin berandu heldu dela ere. «Duela hamar urte dei-

arlotan ditugun adiskidetasuna eta batasun nahien isla.

EGUNKARIA.— Kosta egin zaizu bukatzea, edo hasierako ilusioa zenuen?

ZELAIA.— Kosta egin zait, estimuluak ere ez direlako oso handiak. Hasieran grabazioen estimuluak duzu, baina gaur dagoeneko nekatuta nago dena errepikatzeagatik. Gehienbat bilduma osatzeko ilusioak bultzatu nau bukatzera.

EGUNKARIA.— Zein izan da hainbeste berandutzeko arrazoia?

Donostia funtsezkoak dira. Gero, toki guztietan egon naiz, bertako txistulari, gaitero, musikari eta dantza taldeekin, argitaratuta ez dagoena bildu ahal izateko. Ondoren, aukeratze lana izan da, interes handien duena hartzea: hau da, orduak eta orduak 45 minutura pasatzea.

EGUNKARIA.— Zazpi diskoen artean zein izan da gogokoa?

ZELAIA.— 'Zuberoa' diskoarekin ilusio handiz eta gogor egin nuen lan. Hor konpositore

Bada anaitasun bat, dantzarien artean bereziki nabarmena dena.

EGUNKARIA.— Nafarroa Behereari buruz egin duzun azken disko honek zer ezaugarri ditu?

ZELAIA.— Grabazio honekin berandu heldu naiz. Disko bakoitzean sartu behar izan dut lurralde bakoitzeko musikarik esanguratsuenak, eta gaur egun hori oso jorratuta dago, oso entzuna da. Duela hamar urte ateraz gero, deigarria izango zen, baina gaur egun ez du orduko garrantzia. Hala ere, azpimarratzekoa da diskoan azaltzen den musika bat. Ni hasi nintzen Nafarroako Korteen himnoarekin, eta beste



Enrike Zelaia.

garria izango zen. Gaur egun ez».

EGUNKARIA.— Urte asko joan dira 'Nafarroa' izeneko diskoarekin hasi zinenetik. Gaur egun, proiektua bukatuta, zer sentitzen duzu?

ENRIKE ZELAIA.— Gehiegi luzatu dela. Hasieran nik uste nuen hamabi bat urtetan amaituko nuela, eta sei urte berandutu naiz. Horrek asko mugatu nau beste gauza batzuk egiteko, beste proiektuei ekiteko. Baina bilduma batean muga batzuk errespetatu behar dira, osotasuna duen zerbait egin behar delako. Beraz, antologia osoak diskoak baino garrantzi handiagoa dauka. Antologia osoari dario gure herriaren osotasun kulturalaren izpiritu, eta hori da beste hainbat

ZELAIA.— Denetarik izan da. Ekonomikoki errentagarria izan balitz, disketeak presioa egingo zukeen gauzak lehenago egiteko, baina ez da horrelakorik egin. Nik bukatu nahi izan ez banu inork ez zidan esango zergatik eta neureneurea izan da jarraitzeko erabakia. Baina nire ustez, lan honek badu sinbolo bat, alegia, batasunaren irudia lortu izana musikaren arloan. Gainera, historikoa izango da, horrelakorik ez baitu inork egin.

EGUNKARIA.— Disko hauetan azaltzen diren musikak biltzeko metodoa bera izan da guztietan?

ZELAIA.— Bai. Hasieran beti bildu izan dut lurralde bati buruz dagoen material guztia. Horretarako Azkue eta Aita

lana izan zen nabarmenena, eta 'Xiberoa' rapsodiarekin den dena eman nuen: hori da musikalki hobekien landua dena. Eta, harrigarria bada ere, bera saldu da gutxien. Hori beti sumatu dut: nire ahalegin eta nahiak ez datoz bat jendearen nahiekin, eta hori izan da nik betidanik izan ditudan asmotako bat: jende xumearen maila musikala igotzea. Hori bai, nire lanaren fruituak ez ditut ikusten, ez ditut sumatu jarraitzeko behar diren aldeko estimuluak.

EGUNKARIA.— Dena kontuan izanik, bada batasunik zazpi lurraldeen arteko folkloren?

ZELAIA.— Bai, elkarren arteko eragin asko dagoelako. Bada arlo sozialean eta, jakina, politikoa ez dagoen batasun bat.

«Nere lanaren fruituak ez ditut ikusten, ez ditut eta sumatu jarraitzeko behar diren aldeko estimuluak».

himno batekin amaitu dut: 'Nafarroako Himno Nazionala' izenekoarekin, hain zuzen ere. Musika hau jaso zen joan den mendeko hasieran folklorezale ingeles batek atera zuen argitalpen batean.

EGUNKARIA.— Zama hau bizkarretik kenduta, zer asmo duzu orain?

ZELAIA.— Aldaketa bat egin nahi nuen orain, eta inoiz egin ez dudana zerbait egin: nire taldea osatu. Horretarako banuen folklore-musikari gaurkotasun apur bat emateko asmoa, sintetizadoreen eta teklatuaren bidez. Ez musika hausteko, baina tinbreak aldatzeko. Ez dakit posible izango den, oso zaila baita, batez ere krisi garai hauetan. Hori ateratzen ez bada, eten bat beharko dut, pentsatzeko zer egiten dudana, zeri ekiten diodana. Baliteke erretiratzeko garaia izatea...

Enrike Zelaia

AKORDEOILARIA



SOSLAIA

Hurrena euskara

Diskoa zuzenean aurkezteko asmoa dauka soinu jole altsasuarak, baina datak ez daude oraindik oso zehazturik. «Zuzenean aurkezteko babesa aurkituz gero, Aste Santuaren ondotik aurkeztuko nuke, bestela horren aurretik». Behin sail osoa amaituta, beste zereginetarako denbora gehiago izango duela aitortu du Zelaia, eta horietakoan artean lehendabizikoena, azpimarratu digunez, euskara ikastea. «Dagoeneko ez dut luzamendutan ibiltzeko aitzakiarik. Hurrengo elkarrizketa euskaraz izango da».

NOSKI JATOR

© Zaldi ERDA

